



Laugarren atala

Analisia irizpideak kontuan harturik

Ekologia integrala diziplinartekotasunaren ardatz gisa: El Milagro ikastetxea eta ikasle-egoitza (Iquitos, Peru)

Diziplinarteko lanari dagokionez, arlo guztiak gai nagusi edo bateratzaile baten inguruan biltzea da modurik ohikoenetako bat. Oro har, beheko mailatik goiko mailara antolatzen dira: esan liteke bi maila hierarkiko direla. Diziplina multzo osoaren dinamika goiko mailaren arabera definituko da (M. A. Max-Neef, 2005).

Ekologia integrala hartzen badugu goiko mailatzat, esan genezake gai dela zientziaren arlo guztiak edo curriculumetan arlo gisa ezarritakoak bere baitan biltzeko. Ikuspegi horretatik, Fe y Alegríaren El Milagro Bigarren Hezkuntzako Institutu eta ikasle egoitzak (Iquitos, Peru) ederki erakusten du nola egin daitekeen benetako lan diziplinarteko bat eskolan, ekologia integrala ardatz hartuta.



Ikastetxea 250 hektareako konplexu bat da, zehatzago esanda, eta han lan zabala egiten dute ingurumen-zaintzaren eta ekologiaren inguruan. Hala ere, beste toki askotan bezala, aribidean zituzten proiektu asko eten egin ziren Covid-19aren pandemiaren ondoriozko konfinamenduaren bi urteetan. Denbora horretan, lana teorikoa izan zen eta fitxa, poster eta bestelako hezkuntza-materialen erabilera hartu zuen barnean. 2022ko uztailaren 11ko astean, ikastetxea bisitatu zenean, zuzendariak adierazi zuen beren proiektu anitzak “berraktibatzen” ari zirela (Ricardo Aricara, zuzendaria, elkarrizketa).

Berraktibazio pedagogikoa proiektuetan oinarritutako ikaskuntzatik

Berraktibazioak oso ezaugarri berezia hartu du; izan ere, esparru pedagogikoan indarrez sartu da proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, ingurumenaren gaia jarrikerdiguenean. Hala, hainbat arlo bildu dira guztion etxearen zaintzarekin lotutako ideia batzuk nabarmentzeko lan kolektiboan. Ikusteko interesgarria da: ikasle batzuek ekologiari buruzko triptikoak nola egin ikasi bitartean (hizkuntza), beste batzuek horma-irudiak margotzen dituzte ikastetxeko aurrealdean (arte), eta beste batzuek koreografia bat osatzen dute (gorputz-hezkuntza).

Beste jarduera mota batzuk ere badute zentzurik elkarlan horren barruan, hala nola latak birziklatzea metxeroak egiteko (Amazoniako etxeak argiztatzeko erabiltzen dira) edo plastikozko botilak birziklatzea dirua ateratzeko. Lankidetzak horrek bi alderdi ditu: komunitatearen kontzientziazioa eta ekintza ekologikoa bera, animalien zaintza eta basoberritzea barne. Koordinatzaile pedagogikoa arduratzen da askotariko esperientziak eta arlo arteko lana erlazionatzeaz, hileroko diziplinartekotasunari dagokiona idatziz, bere jarduera hezigarriaren barruan.

Ikastetxean, prozesu berezia osatzen dute pandemian zehar aztertutako elementu teorikoek, aurretiaz egindako lanak eta berraktibazioaren berezko jarduerak (ingurumenaren zaintza harturik ardatz) eta, zalantzarik gabe, ikasteko bidea ematen dute. Horri esker, proiektuetan oinarritutako ikaskuntzako hiru proiektu garatu dira orain arte: 1) ingurumenaren osasuna, 2) elikadura osasungarria, 3) ingurumen-arazoak, kontuan harturik basoen galera ere, landetxeak (*chacrak*) edo ikatza egitearen ondorioz.

Modu horretan, curriculum nazionalarekin parekatzen zaizkio ikastetxe barruan garatutako proiektuak, zeinak ikasleek berek diseinatu eta gauzatuak diren, hasieratik amaieraraino. Prozesuan, arazo bat hartu, eta erronka gisa planteatzen da. Ondoren, arlo bakoitzak arazoarekin lotura handiena duen gaitasuna aukeratzen du. Horrela, adibidez, matematiketan baso-perimetroak edo zuhaitz-mozketen ehunekoa lantzen dira. Lantzen den curriculum-gaitasunetako bat espazioaren eta ingurugiroaren kudeaketa arduratsuari buruzkoa da (Homero Ahuanari, koordinatzaile pedagogikoa, elkarrizketa). Jarduerak lau astez egiten dira, eta proiektua amaitzean arlo bakoitzeko produktu bat izatea espero da. Hala ere, ezarritako gaietatik baino gehiago, beharretik abiatzen dira; horregatik, lehenengo proiektuaren oinarria egoeraren diagnostikoa izan zen.

Lan horrek aukera ematen du, ikasleek gertukoak dituzten problematika errealetatik abiatuta, ekologia-gaiak eta diagnostikotik lehenetsi direnak erlazionatzeko: 1) irakurmen-maila baxua,

2) ardatz sozioafektiboa lantzea, 3) mintzamena. Gai horien bitartez, ekologiaren ildoak jorratzen da, ingurumena zaintzeari buruz kontzientziaztekoa. Lortutako produktuak askotarikoak dira, besteak beste, metxero ekologikoak, basoberritzea, zuhaitzen zaintzari buruzko horma-irudiak eta oilaskoak hazteko guneak.

Basoberritzeari dagokionez, arloei lotutako lan baten barruan, aipatu behar da ikastetxeak sareak eta aliantzak dituela beste zenbait erakunderekin: esaterako, San Juaneko udalak berak landareak emanez laguntzen du. Hor daude, halaber, beste enpresa pribatu batzuk, familia-gurasoak eta Fe y Alegria sarea bera. Oiloen proiektua interesgarria da: eskolari maileguz ematen zaizkio oiloak, eta arrautzak errun dituztenean, arrautzak saldu eta berriz etxeetara itzultzen dira oiloak. Gainera, birziklatzeko botilak bilduz finantzatzen dira, eta baratzak mantentzeko eta zuhaitzetarako ongarria edukitzeko konposta egiten da. Ikasleari ekologia integraleko lan baten nozioa ematen dioten ekintzak dira.

Curriculumetik harago doazen arazoak

El Milagro ikastetxearen alderdi nabarienetik pixka bat harago, ikasleen egoitza dago. Han egun osoan egiten dira jarduerak, bertan bizi baitira ikasleak ikasi bitartean. Gehienak han geratzen dira; beraz, goizez zein arratsaldean daude jarduerak. Hezkuntza Unitateko 210 ikasleetatik, 152 egoitzaren parte dira.


Lehen ikastetxe publiko baten barruan funtzionatzen zuen egoitzak, baina Fe y Alegríarengana jo zuen gero sostengu bila, 2005 eta 2006 artean egindako berregituraketa-programa batean. Aurrez, bizileku gisa erabiltzen zen arren, ez zuen ministerioaren baimenik. Irakasleek ere geratzea erabakitzen zuten, baina orain etxetik joan-etorriak egiten dituzte, batez ere motorrean, hori baita lquitosen joan-etorrietarako bitarteko nagusia. Berregituraketaren aldaketa nagusia izan zen egoitzan lan egiteko modu bat arautu zela, eta, hortaz, langileak daudela ikasle-egoitza bat mantentzeak dakartzan zereginenez arduratzeko. Duela urte batzuk, zelulen bidez lan egiten zen (ikasleek garbitzen zuten jantokia, eta eguneroko hainbat zeregin zituzten).

Gaur egun, askotariko langileak daude: ikasleei laguntzeko kudeatzaileak; matematika, komunikazioa eta lanerako hezkuntza indartzekoak; eta Ministerioak kontratatutako garbitzaileak. Inguru horretan erabat justifikatuta dago egoitza bat izatea, bigarren hezkuntzarik gabeko esparru urrunetan bizi baitira ikasle asko. Orduan, urrutitik eta ibaiertzeko beste eremu batzuetatik datoz.

Hala ere, eta egokia izan arren, imajina daiteke zer arazo dakartzan ikasle egoitza batek berekin, batez ere, gogoeta ekologiko bat egiten bada. Zentroak manten ditzakeenak baino ikasle gehiago ditu, oso konplexua baita ikasle bati sarrera ukatzea. Hezkuntza jaso ahal izatearen mesedetan, nolabaiteko pilaketa sortu da espazioetan. Eskema honetan ikus daitekeen bezala, El Milagroko hezkuntza-komunitateak adierazitako kezken artean elikadurarekin pozik ez egotea, ur-falta eta osasun txarra daude, lotutako auziak guztiak.



10. irudia. Guztion etxea ardatzaren arazoen mapa (El Milagro)



Elikadurari dagokionez, Qaliwarma izeneko erakunde batek ematen dizkie elikagaiak, edo elikagai asko, eta, hortaz, ez dira beti onenak izaten eta gainera sarri errepikatzen dira. Erakundeak, batez ere, jaki ontziratuak ematen ditu. Bestalde, gainpopulazioak ur-falta larria eragin du, nagusiki, Covid-19aren pandemian izandako migrazioaren ondorioz, hirietako landa aldeko biztanle asko egoitzaren ingurumarietan finkatu baitzen berriro. Dagoen ur eskasa komunak eta janaria garbitzeko erabiltzen da.

Hortaz, pabiloietako ikasle kopuru handiak sortzen duen arazoaz gain, argi dago ur-kontsumoa areagotu dela. Hori dela eta, inguruetak errekasto batzuk erabiltzen dira eguneroko bainurako. Larruazalean alergiak dituzten pertsona batzuek negelak dituzte gorputzean, ez baita ur garbia. Era berean, ikasle ugari daudenez, handiagoa da oinarritzko sendagaien eskaria (sukar, buruko min, koliko txiki eta abarretarako), eta hortaz zailagoa da garbitasunarekin lotutako egoera horiei erantzutea.

Komunitatearen elkarriketatik sortu diren estrategien artean, gurasoen borondatezko lankidetzak eta emailak izan litezkeen erakundeekin beste gestio batzuk egitea aipatu dira, baina oztopo horien konponbidea eztabaidagai da oraindik. Hezkuntza-eremuari dagokionez, arazo horren eragina murrizteko eta ez larritzeko, oraindik garrantzitsua da askotariko material eta baliabide ekologikoak sortzea, hala nola natura zaintzeari buruzko kartelak, informatzeko bolanteak, oiloen haztegia, material birziklatuen erabilera (kokoz egindako metxeroak eta neurgailu biologikoak, adibidez), eta beste. Diziplinartekotasunarekin, eta baliabideak bilatuz eta kudeatuz, El Milagro ikasle-egoitzak San Juanen (Iquitos) daukan eskari handiari erantzuteko borrokan ari dira.



Ekologia integrala eskolaren eta komunitatearen artikulatzaile gisa: Nueva Esperanza eskola (Iquitos, Peru)

Errepidean kaltetuta dagoen eremu bat saihestu ondoren, ibilgailua etxe batean utzi eta 500 metro inguruko bidea egin genuen, naturaren berdetasunaren erdian Haur eta Lehen Hezkuntzako Nueva Esperanza eskola aurkitu arte (Iquitos, Peru). Atentzioa ematen duen gauza bat zera da: haur-jolasak eta hainbat landare dituen espazio ireki handian, erdi-erdian, hiru familia-ama daudela gutxienez, apaintzeko lanetan. Laster ohartuko ginen xehetasun txiki horretan datzala hezkuntza-komunitate horren indarra, eskola familiarekin eta komunitatearekin oso modu esanguratsuan integratzea lortu baitu.

Aipatu behar da, egia esan, eskola oso ondo zainduta zegoela: seinale, ez dela bat-batean egindako lan bat, baizik eta komunitatearen eta eskolaren arteko benetako lankidetzaren prozesu bat. Izan ere, esperientzia horren puntu garrantzitsu bat da Peru osoko lehiaketa batean -"Maestro que deja huella" ("Arrastoa uzten duen irakaslea")- eskolako irakasle nagusi eta zuzendari dena saritu zutela, eskola kudeatzen egindako lanagatik. Haren proiektuak -"Fomentando una escuela atractiva y acogedora promoviendo mejores aprendizajes" ("Eskola erakargarri eta abegikorra sustatzen, ikaskuntza hobekuntza bultzatuz")- "eskoletan dauden baliabideak, OLPCak¹ barne, sormenez eta ahal bezain ondo erabiltzea" proposatu zuen (Amazonia Peruana, 2015).

¹ Sigla horrek "One Laptop Per Child" proiektuarekin zerikusia du; Google, AMD, Red Hat, News Corp, Brightstar Corp eta beste enpresa batzuek lagundutako proiektu bat da.



Eskolak, berez, bi irakasle baino ez ditu, eta horietako batek haur hezkuntzako hurrekin egiten du lan. Beraz, bat txikienez arduratzen da, eta besteak hezkuntza-maila guztiekin lan egiten du. Eskolaurreko irakasleak estimulazio-kontuak lantzeko erabiltzen duen gela auzolanarekin altxatu zen, eta familia-gurasoen talde-lanarekin. Gurasoek hala eskola eraikitzen nola eremua zaintzen laguntzen dute.

Aspaldi, ura biltegitartzeko proiektuari ekin zitzaion, eta, horri esker, hezkuntza-komunitateak noiznahi dauka ura. Gainera, barazkiak erein dira, eta birziklatzeko jarduerak jarri dira martxan, zenbait ekintza mantendu eta eskola finantzatzeko. Lorategiak hobetu dira, landare apaingarriak eta egurretarakoak erein dira (adibidez, *marupak*, bertako zuhaitz bat), aisialdirako jolasak egin dira bertako materialekin eta askotariko baliabideekin, eta hori guztia gurasoek egin dute.

Adiskidetasuna eta konfiantza

Esan liteke, esperientzia honetan, eskola eta komunitatea artikulatzeko ardatz gisa balio izan duela eskolak. Gai hori funtsezkoa da, kontuan hartzen bada komunitatea pertsonen bizitzaren erdigunean dagoela eta, beraz, tokiko kultura eta komunitateko kideen bizitza bera ere artikulatzen dituela (Montaluisa, 1968). Nueva Esperanzaren kasuan agerikoa da hori; izan ere, eskola hazi ahala, hazten joan da komunitatea ere. Hasiera batean, bizpahiru etxe besterik ez zituen espazio utzi bat zen, baina gaur egun bertan bada biztanle kopuru nolabait adierazgarria.


Nabarmentzekoa da, batez ere, familietako gurasoekin egiten duten lana: gurasoek bertan garatzen den guztian eta ahal duten neurrian laguntzen eta ematen dute. Lehen ere aipatu da beren seme-alabentzat espazioak behar zituztelako eraiki zutela haur hezkuntzako ikastetxea. Familiek oso gertutik laguntzen dute eskola haz dadin.

Kontuan hartu behar da, hala ere, esperientzia hori ez dela komunitate osora hedatzen. Bada eskolako bizitzan parte hartzen ez duenik eta, hortaz, zuzenean laguntzen ez duenik, nahiz eta gehienak prest dauden, bai laguntzeko, bai eskola haz dadin beharrezkoak diren gestioak errazteko. Eskola Estatuaren erreserba baten barruan dago, eta ukitu ezin diren eremuak ditu. Eskolaren barruan, gurasoek erreserbaren garrantziaz jabetzea bilatzen da, eta, ondorioz, turismo-enpresa txikiak pentsatzen eta garatzen hasi dira batzuk; besteak beste, atzerriarrentzako aterpetxeak.

Komunitatearekin lortu duten harremanari buruz galdetzen zaienean, bi hitz errepikatzen dira: adiskidetasuna eta konfiantza. Argi dute beren lanean konfiantza izanez gero kontuan hartu ahal izango dituztela gurasoak, gertuko harremanak sortu dituztelako haiekin. Horrela, zereginak antolatzen dira, eraikitzen da, azpiegitura hobetzen da, eta, aldi berean, bizikidetzat, lotura eta adiskidetasuna indartzen dira. “Hobetzeko zerbait falta denean, gurasoen laguntza bilatzen da, eta lanerako akordio bat egiten da” (Lizeth Tenazoa, haur-hezkuntzako irakaslea, elkarrizketa).

Eskolarentzat garrantzi handia du komunitateak, eta irakasleek gurasoak orientatzea lortu dute, lankidetzat iraunkorra izateko. Ikastetxea partekatzen duten eragileek (gurasoak, irakasleak, komunitateko buruak, ikasleak), beren arazoez eta beren espazioaz hitz egiten dutenean, ondo iruditzen zaiena nabarmentzera jotzen dute. Ikastetxeko mapan ikus daitekeenez, eguzki-panelak (horiek ere guztion artean kudeatuak), eskola-baratzea, irakurtzeko *maloca*, zaborrontziak, berdeguneak eta jolasak nabarmendu dituzte. Oso modu estetikoan irudikatu nahi izan dute eremua: benetan aditzera ematen du zer ari den gertatzen amazoniar erreserbarekin oso ondo bateratzen den eskola honetan.

13. irudia. Espazioaren mapa hezkuntzako erronkaren ardatzean (Nueva Esperanza)



Zalantzarik gabe, ingurumenaren zaintza da laneko ardatza, eta haren inguruan biltzen da komunitatearen indarra. Hemen ere curriculum ofizialarekin eta eskatzen diren gaitasunekin egituratu dute ardatz hori, ikasleen ikaskuntza-proiektuen bitartez egiten duten eguneroko lanean. Nolanahi ere, proiektuek ez dute zentzurik izango ez bazaio begiratzen atzean dagoenari, komunitatearen beraren ekintzari. Normalean, "landa aldeetako ikastetxea tristea dela pentsatzen da, baina hemen aldatu egin da hori. Baldintza hobeak dituzte haurrentzat; hemen, ikastetxeaz goza dezakete"(Cervelia Peña, zuzendaria, elkarrizketa).

Ekologia integrala baliabideen kudeaketaren indargune gisa: Pedro Ignacio Muiba Fe y Alegría Hezkuntza Unitatea (Trinidad, Bolivia)

Baliabideei buruz hitz egitean, ezin da hezkuntza-prozesu bat garatzeko dauden materialetara soilik mugatu kontzeptua. Baliabideak dira, halaber, pertsonak, elkarreragiteko erabiltzen diren objektuak, hitzak eta hizkuntza bera. Kontzeptu horrek antz handiagoa edukiko luke aktantearen ideiarekin, zeinak giza aktoreak zein gizakiak ez direnak hartzen dituen barnean, harreman-sare konplexu batean (Latour, 2005).

Fe y Alegríaren Pedro Ignacio Muiba Hezkuntza Unitatea (Trinidad, Beni, Bolivia) kasu esanguratsu eta berezia da baliabideen kudeaketari dagokionez. Bi alderdi nabarmengarri ditu: batetik, instituzioaren historia, eta, bestetik, nola lortu duten daukaten guztia artikulatzea hezkuntza-prozesuak hobetzeko.

Hazten ari den ikastetxe bat


Trinidad Velasco irakasleak 30 urte baino gehiago daramatza ikastetxean lanean, eta, bere ezagutzatik, ikastetxearen hazkundeari buruz hitz egin digu. Irakasleentzat adierazgarria da hazkunde hori, suposatu dien prozesua ikusarazten baitu. Ia modu sinbolikoan, berehala, ikastetxeko sarreran dauden zuhaitzak erein zituenekora garamatza haren istorioak; gaur egun jada handi diren zuhaitz batzuk. Guztiz esanguratsua da zuhaitz horiek sarrera apaintzen ikustea eta, beraz, baita ikastetxe osoa ere; izan ere, berak, beste irakasleek bezala, eta gaur egun seme-alabak eskolan dituzten gurasoek oraindik gogoan dute noiz erein zituzten zuhaitz haiek, ikastetxeko eremu lehorrak berdatzeko asmoz, besterik gabe (Trinidad Velasco, lehen hezkuntzako irakaslea, elkarrizketa).

Eskola Pedro Marban auzoan dago. Lehen, auzo horretan ez zegoen etxebizitza askorik, baina gaur egun "asfaltoa amaitzen den tokian" dago eskola, Fe y Alegríaren sortzaileak, José María Velazek, esan ohi zuen bezala (Lazcano, 2005). Biztanle gutxi dago, eta eraikinetik gertu kabildo indigena dago. Istorioan garrantzitsua da hori, kabildo horri esker sortu baitzen eskola, eta 1985ean aldatu zen orain dagoen tokira. Kabildoaren tokian artisautza-zentro bat dago orain, eta bertako gauza tipikoak saltzen eta kultur-ekitaldiak antolatzen dira bertan.

Eskolak haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza ditu. Egun 850 ikasle daude, batxilergora iritsi arte hazten joan baita pixkanaka. Hazkunde horri guztiari sostengu eman dion dinamiketako bat irakasleen antolamendua izan da, lan-batzordetan: soziala, kiroletakoa, diziplinartekoa, kulturala, giza eta kristau-balioena. Haietako bakoitzak eskola-kudeaketari lotutako erantzukizun bat du, eta, beraz, baita eskolaren hazkundera mantentzeko lotutakoa.

Ikastetxeko eragileek, batez ere ikasleek, hezkuntza-erronkari buruz nola hitz egiten duten ikustean ikastetxearen dinamika igar daiteke; izan ere, “aribideko” dei litezkeen prozesu asko hartzen dituzte kontuan (dagoeneko inplementatzen ari direlako), ikasleek espazio komun horri buruz daukaten idealaren osagarri. Horrela, adierazten dute lorategian lur gehiago jarri behar dutela, altzariak aldatu, ikusten diren espazioetan balioak ezarri, eta kalte batzuk konpondu, eskola askoz ere abegikorragoa izan dadin.

14. irudia. Testuinguruaren mapa Guztion etxearen zaintza ardatzean (Pedro Ignacio Muiba)



Guztion etxearen zaintza islatzen da horretan guztiak, eta, jakina, baita ikasleek berek espazioak hobetzeko eta eskola etengabe haz dadin hartu duten konpromisoa ere.

Ikastetxeko bizitza markatzen duten proiektuak

Ikastetxe honen bereizgarrietako bat parte hartzen duen proiektuekin lotuta dago. Horietako bat, adierazgarrienetakoa agian, plastikozko botilen birziklapena da. Herriko lehiaketa baten esparruan eraman zen aurrera, eta Hezkuntza Unitatean balioa eman zitzaion proiektuari, kide guztiak batzeko: horregatik, gurasoen, ikasleen, irakasleen eta komunitate osoaren laguntza izan zuten "botilen osteguna" deiturikoan. Funtsean, ikastetxeko kide guztiek, bildutako botilekin iritsi, eta edukiontzi batean sartzten zituzten.

Eskolarako proiektua ez zen eskolan plastikozko botilak biltzera mugatu: pixkanaka, eta oharkabea, auzo osora zabalduz joan zen. Horrela, aurkitutako guztia ekartzen zen eskolara: bai lehiaketarako botilak, bai minbiziaren fundazio bati emateko tapoiak. Komunitatearen lan jarraitu eta gogotsuari esker, lehen postua lortu zuen ikastetxeak, alde handiz lortu ere, eskualdeko beste ikastetxeek baino tapoi askoz gehiago birziklatu baitzituen.

Jakina, komunitate-lan handia eskatu zuen horrek, eta eskulan batzuk ere egin ziren, plastikoekin egindako jantziak, esaterako. Gainera, alkatetzak birziklatzearen inguruan sustatutako beste proiektu batzuk garatu ziren, eta horrela arloak integratu ahal izan ziren. Gorputz-hezkuntzan, adibidez, hagonak erabili ziren ariketak egiteko, eta musikan, irakasleak abesti ekologiko bat sortu zuen, eskolan oso adierazgarri bihurtu zena (ikastetxean maitasunez gogoratzen dute irakaslea, pandemian hil baitzen). Arteetan marrazkiak sortu zituzten, eta matematiketan bilketa estatistikak aztertu ziren. Baliabideen kudeaketa eskolako diziplinarteko lanaren ardatz bihurtu zen horrela.

Proiektu horiek urtebetez edo bi urtez garatu dira, eta haietan proposatutako ekintzak bete dira. Kasu guztietan, ikastetxearen parte-hartzea adierazgarria izatera iritsi da. Orain, beren buruari galdetzen diote: nola mantendu aldi baterako proiektu horiei lotutako ekintzak? Eta, hortaz, nola erreplikatu proiektu horiek? Orain, berriro martxan jarri nahi dituzte komunitatea elkartu zuten proiektu horiei lotutako ekintzak. Horrek ez du esan nahi eraginik izan ez zutenik; izan ere, kanpora begira, adibidez, familiako gurasoek baratzeak egiten dituzte orain beren etxebizitzetan. Etxean jarraipena eman zioten eskolan hasitakoari. Gainera, plastikozko zaborrak eskolan edo kalean ez botatzearen kontzientzia sortu da. Ingurumena zaintzeko ohitura bat geratu da. Bestalde, alkatearekin akordio batzuk dituzte, proiektu instituzionalen inplementaziotik sortu zirenak. Hezkuntza-mailan, irakasle bakoitzak proiektu bera erabiltzen du, diziplinarteko lan bat egiten jarraitzeko.

Curriculumak eskatzen duen proiektu sozioproduktiboarekin (PSP) integratu dute. Lehenik, irakasle guztien artean proiektua planteatzen dute, eta kronograma bat prestatzen da garatu behar diren jarduerak zehazteko. Ondoren, eguneroko lanerako materiala sortzen da, testuingurua eraldatzeko eta ikasleengan kontzientzia sortzeko interes hezigarrian oinarrituta.

Sortutako baliabideetako bat Trinidad irakaslearena da: “zaborra” erabili zuen -bilgarriak, aldizkariak, kultura idatzia zeukan material oro- hizkuntza indartzeko. Ikasleekin lan egin zen, eta haiek eraman zuten aurrera, ez zegoelako testuak egiteko baliabiderik; hortaz, estrategia hori inplementatu zuten baldintzak gorabehera hezten jarraitzeko. Hortik sortu dira metodo orokorrean hizkuntza lantzeko metodologia propioak, “zaborraren magia” proiektuaren garapena, eta azkenik, “substantiboen abanikoa”. Moxeño-irakaslerik ez duten arren, eremu osoan gehien hitz egiten den hizkuntzetako bat denez, hizkuntzan eta elebitasunean oinarrituz taxutu dira estrategia horiek. Ekintza berritzaileak dira, maisuak berak sortzen duelako bere lana. Edukirako trebetasuna garatzen da.

Azkenik, garrantzitsua da prozesu horretatik sortu diren sare guztiak aipatzea. Artategiarekin eta sorostegiarekin lan egiten da ahoko higiena, osasunaren zaintza, txertaketa eta gisako gaiak lantzeko. Udalerriarekin hezkuntza-lantegiak egiten dira. Militarrek eta indar armatuek hainbat gairi buruzko jarduerak eginez laguntzen dute, eta Trinidaden integratutako Eskola Normalaren, kabildo indigenaren eta Hizkuntza Institutuaren babesa dute.

Elkartasun horrek (aktoreen arteko harremanak) aldaketa bat erakusten du komunitatearen, agintarien, irakasleen eta ikasleen arteko harremanean.

Ekologia integrala naturaren eta kulturaren arteko lotura gisa: Arajuruana Fe y Alegría Hezkuntza Unitatea (San Ignacio de Moxos, Bolivia)

Ekologia integralaren printzipioetako bat guztiaren konexioarena da (Laudato Si', 2015). Horrek esan nahi mundua osotara hartu behar dela kontuan, pertsonez eta haien arteko harremanez harago, erlazio horiek objektuetara, hitzetara eta, oro har, kulturara hedatuz. Alde batetik, esan liteke ekologia integralak munduaren konplexutasuna ulertzeko modu bat dakarrela berekin (Morin, 1992), baina, bestaldetik, baita fragmentazio modernoak murrizten duela ere, natura kulturatik kanpo ulertzeko moduan batik bat. Hala, natura eta kultura batera eta "lotuta" ulertzen dituen ikuspegi baten alde egiten du (Descola, 1996; Latour, 2012).

Lotura horiek ikusgai daude Fe y Alegríaren Arajuruana Hezkuntza Unitatean, San Ignacio de Moxosen (Beni, Bolivia), han nabarmena baita jendea naturaren eta kulturaren arteko distantziak murrizten joan dela pixkanaka. Ikastetxera iritsi bezain laster, badirudi txikitu egiten direla alor horietako bakoitzari ezarritako mugak, eta ikastetxeak, ekosistemaz eta ingurugiroaz gain, eskualdearen bereizgarri diren alderdiez ere hitz egiten du: dantzak, mozorroak edo moxeño-ignaziera hizkuntza.

Jendearen arteko harremanetan ere sumatzen da hori; izan ere, tailer partekatuetan lanean hastean, ikasleek ez dute inolako arazorik izaten irakasleekin, agintariekin eta hezitzaileekin elkartu eta ikastetxeko bizimoduari buruz hausnartzeko. Horrek, nolabait, agerian uzten du ikastetxean eragileekin egin duten harreman-lana eta zer modutan ulertzen dituzten konexio horiekin lor ditzaketen eraldaketak.

Askotariko eraldaketak

Oro har, Trinitadeko eremua eta haren inguruak abeltzaintza-eremuak dira. Inguru horietan sartzen da San Ignacio de Moxos, zeina gurdiz eta gabarraz bi ordutara dagoen, gutxi gorabehera. Fe y Alegríaren ikastetxeetara doazen ikasleak baliabide gutxikoak izan ohi dira; haietako asko egunez egun bizi dira, hau da, baliabide mugatuegiak dituzte. Ezaugarri horiek dituzten leku askotan bezala, pandemiak gogor kolpekatu zuen hezkuntza, familia gehienei mugatu baitzien ikasteko aukera, nahiz eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua bera ez zein inoiz gelditu.

Kasu zehatz honetan, hezkuntzaren aldeko borroka bat izan zen pandemia-garaiko ekintza hezigarria, nahiz eta kostua handia izan, bi urteko galera izan baitzen. Oso zaila da erritmoa berriro hartzea, baita modalitate birtualetara eta erdi-presentzialetara ohitu behar izan duten irakasleentzat ere.




Hala eta guztiz ere, aribideko hainbat proiektu ez dira eskolan gelditu: badira gutxienez hiru proiektu sozioproduktibo, pandemia baino lehen hasitakoak, konfinamendu handieneko espazioen ondoren pixkanaka berriz martxan jarri direnak. Arborizazioaren, hezkuntza-proposamenaren eta azpiegituraren proiektuak dira. Ildo horretan, ahaleginak egin dituzte Hezkuntza Ministerioak curriculumaren barruan eskatzen dituen ekintzekin lotura oso esplizitua izan dadin.

Ikuspegi horretan garatzen diren ekintzen artean kulturartekotasuna eta elebitasuna daude; Arajuruanan, indar handia dute. Arlo horretan, ekologia integralaren aldeko eta guztion etxearen zaintza azpimarratzeko ekintzak egin dira. Nabarmenak dira berrikuntza, hezitzaileen ekintza eta kulturari lotutako jardueren koordinazioa.

Arajuruanaren kasuan, bada horren berri ematen duen zerbait: nola ikusten dituzten beren eraldaketak, duela urte batzuetatik hona garatu duten ekintza hezigarriari dagokionez. Hala, izan dituzten funtsezko aldaketa horien berri ematen duen mapan, bi gai garrantzitsu nabari daitezke: 1) nola nabarmentzen dituzten, zeharo espontaneoki, naturaren eta kulturaren sinboloak, zeinak konexioei buruz esandakoa ikusarazten duten, eta 2) zer ekintza inplementatu diren eraldaketarako: besteren artean, baliabide elebidunak sortzea, lorategiak garbitzeko lana, eskolaren parte-hartzea oroitzapenezko ekitaldietan, eta botilak birziklatzea.

15. irudia. Guztion etxearen zaintza ardatzaren eraldaketa-mapa (Arajuruana)



Editen dituzten ekintza motek argi erakusten dute zer-nolako eragina duen ikastetxearen ekintza ekologiko konexiodunak: martxak, azokak, landare apaingarrien azokak, istorioen dramatizazioak, gai ekologikoak dituzten gau kulturalak, herriko elizari ekarpena egitea, herritarren artean banatzeko zuhaitz-landareak, Isirere aintzira garbitzea, eta beste. Azken batean, irakaskuntzako lan pedagogikoan ekologia balio gisa eta berrikuntza arau gisa txertatzen dira.

Guztia ere, aipatu den bezala, egiturazko pobrezia astindutako espazio batean, non gazte asko lurraldetik joan beharrean dauden, hezkuntzaz bestelako jardunbideak ikasteko. Hortaz, beren jatorriko eskualdean ez dute aukerarik aurkitzen.

Moldaketa pedagogiko elebiduna

Naturaren eta kulturaren arteko harremana ikastetxean garatzen den ekintzaren osagarri bat baino gehiago da: herri baten identitatearekin du zerikusia, eta horrek askotariko jarduera hezigarriak sustatzen ditu. Hala ikastetxearen barruan nola kanpoan (herrian bertan), ingurumena zaintzeari buruzko poesiak eta are jaialdi literario bat ere egitea ekarri du horrek.

Curriculumean bertan badira hori artikulatzen duten ardatz batzuk: haur hezkuntzan, adibidez, marrazkiak eginez adierazten dira. Lehen hezkuntzan, testu ekoizpena eta zero plastikoren erabilera sustatzen dute, eta ordezkoko aukera ekologikoak eskaintzen dituzte. Bigarren hezkuntzan, berriz, lan handia dago martxan, batez ere, material birziklatuz soilik egindako zaborrontziak eginez eskolarentzat.

Eremu honetan, beste alderdi garrantzitsu bat elebitasuna da, espainiera ez ezik, moxeño-ignaziera ere hitz egiten baita bertan. Horrela, aurreko paragrafoan adierazitako literatura- eta poesia-jarduerak hizkuntza horretan egiten dira. Hari lotuta daude, gainera, dantzak, ikastetxean bertan dagoen museoak eta ikastetxeak egiten dituen zaintza-ekintza publiko guztiak. Poesiari dagokionez, adibidez, zenbait ekintza sortu zituzten, hala nola “anaia tximua”, norberaren onura bilatzen naturari egiten zaion kalteari buruzkoa, edo “arreba soja”, fabrika handiak guztion onuraren kontura nola aberasten diren kontatzen duena.

Beatriz Muñuni, Lehen Hezkuntzako 4. mailako irakaslea bera, ikastetxearen adierazgarri ona da. Haren esanetan, “boliviarrak folkloreak sorlekua” da Arajuruana; hor jarri zen martxan eskola, barnetegi gisa, eta 2005etik hezkuntza-mailak gehitzen joan da. Eskolan, Beniko curriculum erregionalizatuarekin lan egin du, erakunde ofizialek gaur egun onartutako material elebiduna ezarriz. Bolivian bi curriculum dituzte-eta, oinarriko curriculum eta erregionalizatu deritzana, eta, San Ignacioren kasuan, azken horrek bi ikuspegi ditu: mundu naturala eta espirituala.

Beatrizek sortutako materialen artean, bilduma- eta sorkuntza-lan oso bat dago. Ikasleek bere egindako poesiez eta literatura-lanez hornitu da. Haren lanak eskolaren funtzio sozializatzailea berreskuratzen du (Mejia, 2011), aintziraren irudi batzuk eta material propioa uztartuz. Pandemian zehar, birtualtasunaren eta sareen munduan sartu zen irakaslea, eta orain bere YouTubeko kanala du, EducavideosBEA izenekoa.

Irakaslearen lanak, eta egindako lan guztiak, kultura arteko hezkuntza elebidunaren ikuspegi berri bat ahalbidetu du; izan ere, “elebitasunean aniztasuna errespetatzen da, eta, beraz, ezin da hizkuntzaren ikaskuntza inposatu. Erlijioa bezala da” (Beatriz Muñuni, lehen hezkuntzako irakaslea, elkarrizketa). Lan horrek sortu dituen loturei esker, ikasleen aniztasuna errespetatzea lortu da, eta baita, pixkanaka, komunitatea integratzea ere. Askoz lotura gehiago sortu dira, eta haietan guk geuk naturaren eta kulturaren artean ezarritako muga galtzen joan da.



Ekologia integrala balio mobilizatzaile gisa: Oscar Romero Hezkuntza Unitatea (Joya de los Sachas, Ekuador)

Zer gertatzen da auzi ekologikoak urte batzuk daramatzanean ikastetxe baten ekintzak mobilizatzen? Bada, balio bihurtzen hasten dela, eta, beraz, eguneroko hezkuntza-lanera iragazten dela. Fe y Alegríaren Oscar Romero Hezkuntza Unitatean (Joya de los Sachas, Ekuador) horixe ari da gertatzen, eta ikastetxera iristen garen unetik nabaritzen da. Hain zuzen, lan-eremu guztietan agertzen da, elkarriketetan, hemen “dimentsio pedagogikoa” deritzonaren berezko dinamiketan, eta duela urte batzuetatik hona abiarazi dituzten borroketan.

Panamazónico izeneko proiektu batekin ekin zioten lanari, eta ikastetxearen ekintza-ardatz bihurtu zen. Korridoreetako hormetan, ikastetxe osoan zehar, ikusgai daude prozesu horren logoak. Norbaitek ez bazituen betetzen prozesutik sustatutako balioak, “logoa erakusten zitzaien, besterik gabe, ikastetxeak ekologiaren aldeko hautua egin zuela gogorarazteko” (Mariuxi Castillo, Panamazoniar proiektuaren arduradun ohia, elkarriketa). Irakaslearen hitzetan, ez da proiektu pertsonal bat, ezpada ikastetxeko eragile guztiak mobilizatzeko modu bat.

Hala ere, ekintza horiek ulertzeko, apur bat atzerago jo behar da; izan ere, 1996tik “gune ekologiko” gisa eratu zen eskola-eremua, eta Hezkuntza Unitateko zenbait gune arbolaztatzen hasi ziren. Panamazoniar proiektua bera 2018an hasi zen, hainbat ekintza jada sortzeko eta garatzeko bidean zeudenean. Ibilbide horretan, lan garrantzitsua izan zen familietako gurasoak eta komunitatea motibatzea eta sensibilizatzea, hondakinak murriztu, plastikoen erabilera kontrolatu eta ingurumena zaintzeko.

Covid-19aren pandemiak proiektu ekologikoak atzerarazi zituen, presentzialtasuna eskatzen baitute. Hala ere, ikastetxeetara itzulitakoan -Ekuadorren ia bi urteko birtualtasun-aldi baten ondoren- berriz heldu zaie ekintzei eta eragile guztiak integratzeko lanari. Prozesu horren abiapuntuan Fe y Alegríaren begirada dago, “bizitzeko eta zoriotsu izateko eman zaigun kreazio” gisa ikusten den eremu baten zaintza (Mariuxi Castillo, panamazoniar proiektuaren arduradun ohia, elkarriketa).

Panamazoniarretik ekologia integralera

Gaur egun, agerikoa da nola aldatu duten ikastetxea panamazoniar proiektuko ekintzek. Ekologia balio mobilizatzaile bihurtu delako, eta ingurumena zaintzearekin lotutako politika sorta batean islatu delako. Horien artean, honako hauek aipa daitezke:

- Erabili eta botatzeko produktuen erabilera murriztu da, bai ikastetxeko jatetxean, bai irakasleen bileretan, eta baita ikastetxeko beste jarduera batzuetan ere.
- Bakoitzak bere tresnak eramaten ditu ikastetxeko espazioetara, eta horrek nabarmen murrizten ditu sortutako hondakinak.

- Gehiago zaintzen da ikastetxeko dokumentazioa, digitalari lehentasuna emanez.
- Komunikatuekin batera doazen sinaduretan, beti jartzen da ingurumenari lotutako esaldi motibazional bat.
- Fe y Alegría egindako gida pedagogikoak erabiltzen dira diziplinarreko lan pedagogikoa sustatzeko. Irakaslearentzat gida bat dago, eta gida bat hezkuntza-maila bakoitzerako.
- Laneko gidetatik abiatuta, poesia eta kantuak sortu, eta hainbat hedabidetan jendarteratu dira.

Horrek guztiak aldaketa nabarmenak eragin ditu. Lehen, zaborrak geratzen ziren bileretan; egun, sektore garbi eta kutsatu gabeak dira. Familietan, nekazaritzako fumigazioaren erabilerak zaintzen eta haren ondoriozko hondakinak baztertzen hasi dira. Badirudi gaur egun zaintzeko konpromiso handiagoa dutela komunitateko eragileek. Kontzientzia sortu da, ingurumenaren gaia lantzen duen programa edo irakasgai espezifiko bat edukitzetik harago.

Ekintza eta printzipio ekologikoak eguneroko lana bustitzen duten balio instituzional bihurtu direnez, konpromisoa esplizitatu nahi izan da, ez soilik ekintzan, baizik eta baita Oscar Romeroko eragileentzat ezinbestekoa den horretan ere. Horregatik, parte hartzeko prozesu baten ondoren, “ingurumen-dekalogo” sortu dute. Dekalogoak berak hainbat printzipio biltzen ditu, hala nola “prestakuntza eta hausnarketa” edo “izaki bizidun ororen zaintza”, baina ekintza oso espezifiko batzuk ere zehazten ditu; adibidez, argia aurrezteko edo ingurumen-mobilizazioetan aktiboki parte hartzea. Manifestu horretan nabarmentzen den puntu bat jasangarritasuneko jardunbide egokiena da: berritzea, berreskuratzea, birziklatzea, berriz diseinatzea, murriztea, berreraikitzea eta konpontzea. Hona hemen Oscar Romeroko ingurumen-dekalogo.

16. irudia. Ingurumen-dekalogo (Oscar Romero)



Hezkuntzan izan duen eragina

Alor pedagogikoan nabariak dira ikastetxean sortu diren ingurumen-politikak. Horietako bat da irakasleei askatasuna ematea, ikasgeletatik kanpoko espazioak erabil ditzaten beren plangintzak garatzeko. Hori beharrezkoa da, ikasgeletako beroa hezkuntza-lanerako jasanezina izan daitekeelako, eta kanpoan lan egiteko tokiak hedatzea lortu du. Horrela, orain “ikasgela ekologiko” deritzana daukate, baina ohikoa da ikasleak eskoletarako tokiren bat konpontzen eta garbitzen ikustea. Zuhaitzak eta landare apaingarriak erein direnez, hezkuntza-lanerako egokiak diren gune asko daude ikasgeletako hormez harago.

Ekologia integraleko moduluekin, teoria eta praktika uztartu dituzte, modu ludikoan, dinamika eta ariketen bitartez. Gaitasunak garatzeko proposamenean, erabili eta botatzeko materialarekin ere lan egiten da, ahal den guztia berrerabiltzea bilatuz. Gainera, debekatuta dago mugikorra erabiltzea eta zuhaitzak ez mozteko udal-politika betetzen da.

Urteko curriculum-planean ikuspegia aldatu da, ekologikoagoa izan dadin. CORDIS metodologia erabiltzen dute, herri-hezkuntzaren printzipioetan oinarritutako prozesu bat, Fe y Alegría bere ikuspegi pedagogiko pastoralaren eraikuntzatik abiatuta inplementatzen duena: berekin dakartza testuinguruan jartzea, jakintzei eta esperientziei balioa ematea, jakintza-trukea, berrikuntza eraldatzailea, eta sozializazioa eta sistematizazioa (Fe y Alegría Ecuador, 2016).

Hezkuntza-lan horren guztiaren esparruan, proiektu ekologiko batzuk garatu dira, hala nola:

1) “Nire seme zuhaitza eta ereintza-maratoia” (egurretarako zuhaitzak erein, eta etxetik zaindu zituzten), nahiz eta aitortu ereindako zuhaitzen jarraipena egitea falta dela, 2) “Etxeko materialez egindako erosketa-poltsak”, jada erabiltzen ez diren materialekin, adibidez, arropa erabilia eta, 3) “Sendabelarren baratzea”, haurrekin eta haien familiarekin egina.


Horrela ikusita, etxeetaraino iristen da ekintza ekologikoen eragin hezigarria; izan ere, han uzten dituzte birziklatzeko botilak, beren poltsak eramaten hasi dira supermerkatuan erosketak egiteko, zabortegei ekologikoak dituzte eta, jakina, baita ingurumen-kontzientzia handiagoa ere (Lindsay Criollo, ikaslea, elkarriketa). Ikastetxearentzat, funtsezkoa da sintonian lan egitea eta bilerak aprobetxatzen dira konpromiso hori hobetzeko. Familekin, asko hitz egin da kontsumoaren gaiaz, eta gobernu autonomo deszentralizatuarekiko lankidetzara ere hedatu da hori (Benigno Celi, errektorea, elkarriketa).

Txinparta su izan dadila

Ekintzak hedatu eta konpromisoa sendotu nahi denean, José María Vélazen esaldia erabiltzen dute Fe y Alegría: “txinparta su izan dadila”. Inguru honetan, oso konnotazio berezia hartzen du, arazo batzuek arreta handiagoa eskatzen dutelako eta oso zaila delako hezkuntza-ekintza iraunkor bat garatzea haiei aurre egiteko: petrolio-konpainietatik datorren kutsadura murrizteko borrokaz ari gara.

Eragileen arteko elkarriketetan, sakon eztabaidatzen da halako arazoei buruz, eta ongi dakite haien esku dauden ekintzak ez direla nahiko izango. Hortik kanpo, arazo horiek definitzeko eta kokatzeko ahalmen handia dute, Hezkuntza Unitateko eragile talde batek egindako mapa honetan ikus daitekeen bezala. Mapan jaso dute non daukan arazo horrek indar handiena eta non dauden, besteak beste, ibai-kutsadura eta zabor-pilaketa handienak.

17. irudia. Guztion etxearen zaintza ardatzaren arazo-mapa (Oscar Romero)



Arazo horren aurka borrokatzeko, garrantzitsua da sarean lan egitea, eta, hain justu, gaur egun bi gauza lortu dira ildo horretan: 1) petrolio-kutsaduraren kaltetuen elkarte bat izatea, eta 2) apurka-apurka eta 2030. urtera bitarte Amazonian “heriotzaren” metxero deritzenak itzaltzeko promesa, zeinak putzuetan petrolio erretzetik baitatoz, (Wambra, 2022). Argi dago orain arte ez dela betetzen hori, komunitateko kideen ustez, lurraldeko ustelkeria orokorra dela medio. Ingurumen Ministerioak espezieen babesaz baino ez du hitz egiten, eta ez petrolio-isuriez.

Bitartean, metxeroek eremuan kalte egiten jarraitzen dute: hura gehiegi berotzen (mikroklima), minbiziaren moduko gaixotasunak eta ezagutzen ez diren beste gaixotasun batzuk sortzen, eta, kasurik okerrenean, biztanleria hiltzen. Planeta hobe baten aldeko borroka askoz antolatuagoa eskatzen duten inpaktu batzuk dira.

Ekologia integrala aliantzen motibatzaile gisa: Sagrada Familia Fe y Alegría 64 (Tingo María, Peru)

Ekologia integralaren inguruko lanerako, garrantzi handia du lehendik zeuden aliantzak sendotzea edo beste batzuk bilatzea, sare-lana indartzeko eta lan guztiz esanguratsua garatzen lagunduko duten babesak izateko. Peruko Fe y Alegría ekologia integralari buruzko lanak indar handia du, eta sareko ikastetxe ugarietako edozein jar daiteke adibide gisa, baina Sagrada Familia eskolan ikus daiteke nola eratu dituzten eragileek aliantza batzuk, ekologia integralari dagokionez hezkuntzan eragina izatea ahalbidetu dutenak.

Ikastetxea Tingo Marian dago, non mendilerroa eskualde amazoniar bihurtzen den, eta ingurumen-arloko liderren prestakuntzan aritzen da. Lan horren ondorioz, ekologia integralari lotutako hainbat ekintza adierazgarri jarri dituzte abian. Lidergorako prestakuntzaren helburua hiria arbolaztatze eta basoberritzeko beharraz jabetzea da.

Proiektuari dagokionez, hainbat etapatan garatu da. Lehenengo etapak basoberritzea hartzen du barnean: Nekazaritzako Unibertsitate Nazionalak lagundutakoa (batez ere, erreserbako basoan, non zuzenean naturarekin elkarrengatze aukera eduki duten), ikastetxetik gertu dauden espazioena eta Gironeko jardineran (inguruko lorategi botaniko bat) limoi-belarra ereitea. Horri guztiari esker, naturarekin zuzeneko harremana izan dezakete ikasleek, eta klima-aldaketa arazoak eta ingurumena zaindu beharraz jabetu daitezke.

Bigarren etapak Brunas izeneko tokian dagoen muinoa arbolaztatzearekin eta berroneratzearekin dauka zerikusia, eta hirugarrenak Tingo hondartza basoberritzearekin. Baso-mozketa orokortuak eta ingurumenaren zaintza eskasak suntsitutako tokiak dira guztiak ere. Egunero mozten dira eskualdeko zuhaitzak; ingurumenaren arloan ekiteko arazo nagusietako baten berri ematen du horrek. Azken bi etapa horiek, ordea, aribidean daude oraindik, eta, hortaz, garrantzitsuak dira aliatuak, hala nola unibertsitatea eta beste gobernu-erakunde batzuk.

Ez da ingurumen-borroka soilik, borroka soziala ere bada

Liderrak trebatzeko proiektu hori guztia ikastetxeko zientzia eta teknologia alorretik egiten da. Ikasleak lider gisa trebatzeko sortu zen proiektua, eta eragin biderkatzailea izan du inguruan dituzten arazoei aurre egiteko. Prozesuan, besteak beste, landare apaingarriak erein dira, baina, kontzientziarik ez dagoenez, batzuek berekin eramaten dituzte, eta tokiak hutsik geratzen dira. Horregatik, proiektuak badu komunitatearekiko inplikazio bat.

Beraz, kontua ez da arbolaztatzea, jarduera isolatu gisa, baizik eta ingurumen-kontzientzia handiago baten alde borrokatzea. Tingo Maria eskola hiriaren erdigunean dago, merkatutik gertu. Handik, muino berdeak nola desagertzen diren eta hiria inguruetara nola hedatzen den ikusi dute. Pixkanaka-pixkanaka hiria kaotiko bihurtu da, batez ere uholdeak datozenean, ibaia ez baita egoki drainatzen. Gainera, saltzaile ibiltariak argi eta garbi erakusten dute sektoreko pobrezia.

Proiektuak mehatxu horiek guztiak arindu nahi ditu, oro har, agerikoa izanik kontzientzia hartzea errazten duen jarduera batekin.

Proiektuaren garapenean, ikastetxearen aliatu nagusietako bat Rotary Club da, ikastetxearen borroka sozial eta ekologikoaren babesle izan zitekeela iruditu zitzaion-eta. Horregatik, hitzarmen bat sinatu zen erakundearekin, eta beste ekintza mota batzuk ere ahalbidetu ditu hitzarmenak. Ikastetxearen inguruko espazioak arbolaztatu zirenetik, proiektuak espero gabeko indarra hartu zuen, eta, beraz, ondorengo faseekin zabaldu egin nahi da. Horretarako, oso ondo datorkie aliantzak izatea. Izan ere, esperientzia adierazgarria izatearen arrazoietakoa bat da, hein batean, agerian uzten duela zer-nolako gaitasuna izan duen ikastetxeak Rotary erakundeak eskainitako abaguneaz baliatzeko: haiek jo zuten ikastetxera, eta eskolak proposatu zien ingurumena zaintzeko proiektuetan laguntzea. Ikastetxeari lagundu nahi zioten, eta, beste eragile batzuk ere tartean sartu zituen elkarrizketa sorta baten ondotik, ekintza espezifikoak babesten hasi ziren.

Babes horiekin guztiekin, ikastetxean argi dute kontzientzia sortzea dela asmoa. Kontzientzia sortzeko, liderrek (ikasleek) kontzientzia izan behar dute: haiek ezagutu eta bilatu behar dituzte ekintza-mekanismoak. Lidergoarekin, proiektua gero eta jasangarriagoa da. Horregatik, garatutako ekintzek eragina dute eskualdean, eta ekite espezifikoak proposatzen da sortzen ari diren arazoei aurre egiteko.

Hori guztia hasi zenean ikastetxean baino ez zen eramaten eta, pandemia-garaia zenez, modu birtualean. Parte-hartzaile gehienak lehen hezkuntzako ikasleak dira; hortaz, galdera mobilizatzailea honako hau izan zen: nola prestatu liderrak txikitatik ingurumen-kontzientzia izan dezaten? Kasuak eskatzen zuen ardura guztiarekin, proiektuak presentzialtasunerantz egiteko balio izan zuen, 4. eta 5. mailako oinarritzko hezkuntzako ikasleekin eta haien familiekin.

Proiektuari esker, ingurumenaren zaintzan ikasleak helduen “hezitzaile” izan daitezkeela ulertu ahal izan da. Haiek gonbidatu dituzte beren familiak landareak ereitera. Adibidez, ikasle bakoitzak bere gurasoekin bost landare ereiteko konpromisoa hartu du, eta gutxienez 55 dira lanarekin konprometituta daudenak: horrek eragin biderkatzailea du gizartean, erakusten duten ereduagatik besterik ez bada. Inpaktu mesedegarri bat dago, eta haren gonbidapena da etorkizuneko belaunaldiek natura gehiago eduki ahal izatea: “helduek fedea galdu dute, baina haurrek eta gazteek konfiantza handiagoa dute etorkizunean” (Elizabeth Huaman, irakaslea, foku-taldea).

Lidergotik ikastea

Pixkanaka, landareak zaintzea zein garrantzitsua den ikasi dute ikasleek. Horietako askoren ustez, gai horrek lotura nabaria du, izan ere:

... etxean landareak daude, baina proiektuan are gehiago hartu ziren aintzat. Proiektua egin ondoren, naturarenganako maitasun handiagoa sentitzen da, gizakia ez baita jabetzen. Zuhaitzak legez kanpo mozten dira, basoak erretzen dira. Proiektuarekin, naturarenganako maitasuna sustatu ahal izan zen; gainera, landareak, ibaiak eta itsasoak egoera onean daudenean funtzionatzen du ondo naturak. Zuhaitzak landatzen badira, higadura-arriskua txikiagoa da (Dayana Hidalgo, ikaslea, foku-taldea).

Lidergoarekin, ekologia integralaren ardatzei buruz ikasi da: guztion etxea zaintzea, alegia, gu bizi garen tokia, naturarekin partekatzen duguna. Printzipio horrek dena lotuta dagoela gogorarazten digu, naturak harmonian funtzionatzen duela, landareak ereiten eta euria egiten duenean bezala. Proiektuari esker, ingurumenaren eta iraunkortasunaren garrantzia uler dezakete ikasleek, eta, haien bitartez, baita familiek eta komunitate osoak ere.

Ikasgeletan ikasi dutena, landan ukitu eta sentitu ahal izan dute. Tingo Maria paisaia ederreko hiri bat da. Zorritzarrez, baso asko erretzen dira. Kontzientzia falta da. Baina proiektuaren bitartez, haurrak motibatzaile bihurtzen dira (Maritza Bautista, irakaslea, foku-taldea).

Eskolak dokumentu batean sistematizatu nahi du hori guztia, ondorengo trebakuntzetarako balio dezan: zer egin da ondo? zer ez da ondo atera? zer egin daiteke aurrerago? Asmoa da eragina biderkatuko eta lidergoa bultzatuko duten hurrengo proiektu batzuen hasiera izatea hau.

Ekologia integrala curriculumaren eraldatzaile gisa: Escola Família Agrícola, Jaboticada

Hezkuntza-eraldaketaren jatorria ekologia integrala izateak eta espazio hezigarrietan egindako ekintzak ardatz horren inguruan antolatzeak ez du esan nahi, ezinbestean, hori denik indar mobilizatzaile bakarra. Hezteko hainbat moduri lotzen zaio, eta ingurumenaren ikuspegitik berez esanguratsuak diren prozesuak indartzeko ahalmena du.

Escola Família Agrícola edo EFA (Jaboticada, Brasil) ikastetxearen kasuan, ardatz ekologikoaren eta ikastetxeko pedagogiaren integrazioan ageri da erlazio hori. Berria ez izanagatik ere, berrikuntzaz betea da haien pedagogia, proposamen berezia baita “eskolatzat” ulertzen dugunaren aldean. Txandakako pedagogiaren proposamenaz ari gara, zeinak eskolaren eta familiaren artean artikulatutako lana integratzen duen, bi espazioetan teoria eta praktika txandakatzen dituen hezkuntza mota bat proposatuz.

EFA bat denez, eta hezkuntza-aukera global baten parte denez, ikastetxeak gutxienez oinarritzko lau baldintza betetzea espero da: 1) txandakako irakaskuntza, 2) tokiko garapena, gizartea saretzen duten prozesuetatik abiatuta; 3) banakoaren hezkuntza integrala, barnean harturik prestakuntza, pertsonen arteko harremanak, autonomia eta ingurumenaren balioespena, besteak beste; eta 4) oinarritzko elkartegintza, rol, zeregin eta erantzukizun bereiziek, familiek eskola kudeatzen parte hartzea barne (Divinsky, 2019).

Txandakako pedagogia

Bestelako proposamen pedagogiko bat izanik, txandakako pedagogiak, Jaboticadako gure EFaren kasuan, ikasleekin lan egiteko metodologia bat hartzen du barnean. Ikasleek 15 egun ematen dituzte eskolan, eta 15 egun familian. Lehen eremu horretan, tokiko jakintzak lantzen dituzte, errealitatea problematizatu eta errealitateak eraldatzeko aukeren bila doaz. Familia-eremuan, praktikan jartzen dute hori guztia.

Eskola-lana bidelaguntzaren bidezosatzen da, eta ezartzen diren proiektuetatik abiatuta eramaten da aurrera. Ekologia integrala ildo beretik doa, eta proiektu horietan, talde osoak dihardu irakasle eta begirale gisa. Hala, 140 gazte dira batera eta elkarrekin eraginez. Banaketa horrek (% 50 familian eta % 50 eskolan) aukera ematen du eskolarekin konpromiso sakonagoa izateko eta, hortik, baita Lurra eta bizitza zaintzeko ere.

Eskola-lanaren barruan, eskualdeko arazoei heltzen zaie. Egoera konplexuak lantzen dira, hala nola zuhaitzen errekontza, horiek errez “bizitzak eta lurrian ekoizitakoak hiltzen baitira” (foku-taldea). Eskolak beste dimentsio bat eman nahi dio inguru erdi-lehorrekin bizitzeari, Jaboticada eskualde lehorra baita. Horrela, ikasleak eskolan bizi diren 15 egunetan, lana da haien printzipioa: animaliak eta lurra zaintzen dituzte. Elkarbizitzarako eta jendearekin jarduteko teknikak ikasten dituzte lan horretan. Espiritualtasuna presente dago. Hezkuntza integrala da, pertsona bere osotasunean hartzen baita kontuan (Fabio Bonfim, irakaslea, foku-taldea).

Nekazaritzako eskualdea denez, gaiak ere ildo horretatik doaz. Lurrarekin, urarekin, etxearekin, komunitatearen historiarekin, tradizioekin eta bizitzarekin berarekin zerikusia duten sistemak aztertzen dira. Egituran 5 gai daude urtean, hiru hiruhilekotan banatuta. Denbora horretan paper-zorro izeneko material bat prestatzen dute ikasleek, eta haien tutore eta bidelagun den irakasleari ematen diote. Prozesuan, familia ez da kanpoan geratzen, eskolarekin harremana duelako eta seme-alabekin gai horiek eztabaidatzen dituelako. Eskolan eta familian gertatzen da hezkuntza.

Bestalde, ingurunearen eraldaketa denez txandakako pedagogiaren oinarrietako bat, pentsatzekoa da eskualdean eragin handia duela eredu horrek. Garrantzi handia ematen zaio herritartasuna ikasteari, ikasleek ingurunea ulertzeari. Horregatik, hainbat ikasle batu dira ondoren udalerrietan, elkar teetara, askapen-mugimenduetara, komunitateetan edo kulturarteko espazioetan. “Ez dago konpromiso idatzirik, baina bai konpromiso bat bihotzean” (ikasleak, foku-taldea).

Pedagogia horretan, erabiltzen diren tresnak ere kontu garrantzitsua dira: bisita, ikasketa-plana, prozesuaren bitartekaritza, errealitatea ezagutzeko dokumentuak, elkartegintza, kooperatibismoa. Gainera, txandakako hezkuntzari buruzko aldizkariak, materiala, tesiak eta hitzaldiak dituzte; hala ere, argitu dute oraindik beharrezkoa dela eremu pedagogikoan berezia dena sistematizatzea.

Hain zuzen, horren ondorioz oso zaila da halako eskola bat kokatzea Hezkuntza Ministerioan, mailaka araututako espazioa baita zeharo. Gaur egun, hainbat urtez borrokatu ondoren, haien lana bermatzen duten ebazpenak dituzte. Konplexua da, aurrera daramaten irakaskuntzak gizarte-mugimenduekin eta lurraren aldeko borrokarekin zerikusia duelako, berez jakintzari lotutako gaietatik harago. Hezkuntzaren alde borrokatu dira.



Tresnen artean, aipagarria da elkartegintzaren eta kooperatibismoaren gaineko interesari lotutakoa eta, zehazkiago, familiak prozesuan benetan parte hartzeari lotutakoa. Eskolak balioa ematen dio testuinguruari lotutako prestakuntzari, eta hezkuntzatik ekarpena egiten dio komunitateari, harekin lotura estua duten gaiak jorratuz. Horregatik, ikasleekin bakarrik egiten ez diren hainbat jarduera pedagogiko dituzte, hala nola familiekiko jaialdia, non komunitatearekin integratzen baitira ikasleak. Urtero egiten den elkarbizitza-jaialdi bat da, eta hor aldaketa pedagogikorako proiektu bat egiten dute komunitate guztiek.

Familiaren eta komunitatearen beraren bizi-esperientzia aldatu du horrek. Horrenbestez, bien ala bien bizi-kalitatea hobetu du. Jendeak ez du ikasgelan soilik ikasten, baizik eta esperientzian bertan, bisitetan, parte hartzean. Gainera, ikastetxean batzarrak sustatzen dira, hiru guztira, jendeak erabaki beharreko hainbat gai lantzeko. Besteak beste, haurren maitemina, gai ekonomikoak eta kontu pedagogikoak lantzen dituzte. Oso elkarbizitza-une garrantzitsua da, eta bi eragin esanguratsu izan ditu: bai alor sozioekonomikoan, bai gizarte eta ingurumen alorrean, proposamen pedagogiko alternatibo baten bitartez.

EFAk, bada, bizimodu duina sustatzen du, familiek eskualdea utzi beharrik gabe. “EFAk erresistentzia, bizitza, oreka, ingurumenaren eta pertsonen arteko bizikidetzak esan nahi du. Eta bizi-kalitatea, komunitatea zaintzen duelako. EFA eraldaketa da” (Marlene, ama eta ikasle ohia, foku-taldea).

Eraginak fronte askotatik

Eskola barruan proiektu garrantzitsuak egiten dituzte; besteak beste, eguzki-argiaren bidez energia hartzea, eskolan ura tratatzea, nekazaritza berritzea, teknologia modu berrietan erabiltzea, biomen arteko interakzioa lantzea, eta elikagaiak sortzea. Horrek askotariko inpaktu eta eraldaketak ekarri ditu, berrikuntzak eta ekintzailetzak ez daitezen ikuspegi ekonomiko hutsetik egin, baizik eta ingurugiroan eta baliabide naturalen zaintzan pentsatuz.

Komunitatearen protagonismoak bide ematen die inpaktuei, komunitatea eraldatzeko agente gisa trebatzen baitira eskolako kideak. Guztiek daukate protagonismo-esperientzia bat, baita hurrek ere.

Bestalde, inpaktu ugari daude landa-eremuan, testuinguruan kokatutako prestakuntzak pertsonen bizitza aldatzen baitu. Prestakuntza hori osoa da eta lanbidearen testuingurura ere hedatzen da, medikuntza, albaitaritza, nekazaritza, zooteknia eta gisako alorrak barne harturik. Pertsonak aldatuta, testuingurua aldatzen da. Orduan, pertsona asko ari dira ura tratatzen, toxikoak erabiltzeari utzi diote, beste ekintza batzuen artean. Trebatzeko kartillak prestatu, eta horri esker agroekologiako gaiak landu dira. Galdera hau planteatu da: nola ekoizten dut? nola zaintzen dut ingurumena? Jasangarritasuna da ardatza.

Azken finean, ingurumenean pentsatuz ekoiztea da kontua; oinarri ekologikoa duten elikagaiak ereitea, eta landan moldatzen jakitea. Ekologia berriro lurrera begiratzeko gonbidapen bat da, lurraren jabe ez baizik eta haren parte garela aitortzeko. Pertsonen eta munduaren arteko harremanak zaintzarekin, lankidetzarekin eta ingurugiroaren eta hirien arteko loturarekin du zerikusia. EFaren kasuan, bizirik irautea da kontua, eta ekoizpenean iraunkortasun ekologikoa zaintzeko eta bermatzeko bitartekoak aurkitzea.

Ekologia integrala mobilizazio kolektiborako ekarpen gisa: Fe y Alegríaren Ekomunitate proiektua eta bidexka ekologikoa

Ikasbide ugari ematen dituen esperientzia bat, zalantzarik gabe, Guatemalako Fe y Alegríarena da. Guztiek batera egindako lanak zubi eraginkor bat eraikitzen du testuinguruaren eta erantzun ekologikoaren artean; hortaz, esan liteke ekologia integraleko lan bat dela benetan.

Ekintzetan baliabideak, jendea eta ideiak mobilizatu dira, eragileen parte-hartze zabala ekarri eta kolektibo osoa martxan jarri duen lan batean. Parte-hartzea esperientziaren ikusle izatetik askoz harago doa: lan ekologikoaren ondorioz egin beharreko ekintza eta gestioetara hedatzen da. Fe y Alegría Nro. 2 ikastetxean, adibidez, zuhaitzak landatzera eraman dituzte haurrak, ingurumen-ongizateaz jabearazteko. Ez da zaborra biltzea edo ura zaintzea soilik, prebentzio- eta zaintza-ekintzak ere badira: “Ez da zaborrik bota behar”; kontua ez da zaborra biltzea soilik.

Zuhaitzak ereinez, halako jarduerak haien prestakuntzan duten garrantziaz jabetzen dira haurrak. Gutxi gorabehera 150 zuhaitz erein dira, familiako gurasoekin batera egindako lan baten barruan. Eskolako baratzean, lurra prestatzen, landareak ereiten, zaintzen, lainoztatzen eta uzta biltzen irakasten da. Eskolan bertan, botilekin eskulanak egiteko teknikak, ura zaintzekoak eta ingurumena ez kutsatzeko estrategiak garatu dituzte. Ikastetxeko parkean hagun birziklatuekin egindako jolas batzuk jarri ziren, eta lorontzi gisa ere erabili ziren. Auzoa garbitzeko jardunaldiak egin, eta auzo garbiagoa izatera bultzatu zen. Aldi berean, kartoia eta latak birziklatzen ziren, eskolarako funtsak lortzeko, eta familietako gurasoek haurrentzako espazio ekologikoak egokitzen lan egiten zuten.

Hala ere, ekintza horiek guztiak, zeinak ezagunagoak baitira kontatutako esperientzietatik, behin-behineko ekintza ekologikoak baino ez dira haientzat. Ekimen horietatik sortzen den kontzientziazio-prozesua da garrantzitsua. Haren ondorioz, eragin askoz handiagoa duten ekintzak pentsa ditzakegu; esate baterako, erabili eta botatzekorik edo plastikorik ez erabiltzea ikastetxeko politika gisa. Gainera, ikasleen kontsumoa hobetu nahi da, askoz naturalagoa izan dadin. Ikastetxeak bere barazkiak eta sendabelarrak ditu berroneratutako gune txiki batzuetan. Eskari txikia asetzen badute ere, eskolan ekintza txiki batzuei sostengu emateko balio dute.



Behin-behineko ekintza ekologikoetatik harago

Beraz, baditugu eragin txiki eta ertaineko ekintza batzuk, baina aurrera eraman ahal izan duten eragin handiko ekintzagaratik da Guatemalako esperientzia benetan berezia. Fe y Alegría, ingurumen-hezkuntza formaleko lan eskerga dago EDUCONAPen ekimenei lotuta. Programa horretan, eskola eta Ereku Babestuen Kontseilu Nazionala biltzen dira, elkarlanean.

Ingurumen-egutegiaren arabera ezarritako 5 osagai dauzka:

- Zuhaitzaren, lurraren, uraren, basa-bizitzaren eta ingurumen-hezkuntzaren egunen ospakizuna.
- Gela berdea (ordena eta birziklapena).
- Hondakinen eta hondakin solidoen (zaborra) kudeaketa.
- SIGAPera bisita (eremu babestuen Guatemalako sistema).
- Ekoproiektua: zer behar den, eta behar den horretatik abiatutako diagnostikoa. Eskolako baratzea, sentsibilizazioa sustatu eta berdeguneen sorkuntza motibatzeke.

Programa 2020an hasi zen, eta, eskola-proiektu gehienak bezala, pandemiaren gorenean aldi baterako geratu zen. Helburua irakasleen komunitatetik sentsibilizatzea zen (eta da), ikasleen eta haien familien bizitzan eragina baitute. Gobernuak etengabe monitorizatzen du, ez baita aurrera eramateko prozesu erraza (Fabricio Juárez, Guatemalako Ereku Babestuen Kontseilu Nazionalako kidea, foku-taldea).

Ekintzak askoz zabalagoak dira, haien artean daudelako eskola komunitatearekin eta gobernuarekin lotzen duten lan-sareak ere. Hortik abiatuta, aurrera eraman den prozesurik handiena sortu zen, zehazki, Fe y Alegría Nro. 11 ikastetxetik. Zabortegi klandestino bat ere zegoen toki batean, berdegune bat leheneratu da eta bidexka bat dago orain. Sare-lanari eta gai ekologikoa Fe y Alegriaren hezkuntza-planarekin lotzen zuen prozesu pedagogikoari esker leheneratu zen.

Ereku hori Zacualpan dago, eta ez da Fe y Alegriarena soilik; komunitatearentzat eta beste ikastetxe batzuentzat ere erabilgarri dago. Espazio txiki bat leheneratzeko proposamen gisa hasi zen, eta pixkanaka-pixkanaka sare gehiago sortu ziren, eragileak barne hartuz, udalerraren eskutik lan eginez. Hala, bere garaian egindako plangintza gaingitu zuen proiektuak, eta alferrik galdutako berdegune bat erabat leheneratuz amaitu zen. Egun, Fe y Alegriak zuzentzen du eremu hori.

“Norberaren garapenerako ahaldundutako gazteak” izeneko proiektuan, espazio publiko bat berroneratzea pentsatu zen. Zacualpa udalerrira baso-galerak markatzen duenez, komunitate osoari mesede egingo zion zerbait egitea pentsatu genuen, eta hortik sortu zen bidexka ekologiko baten ideia. Hasieran, bost soka inguruko lurzati bat genuen buruan, mahaitxo batzuk zituen, familiarekin egoteko aproposa, baina proposamenak ikusita ideiak agertzen hasi ziren eta ez zegoen leku txikirik. Ereku publiko bat nahi genuenez, aztertu eta udalera jo genuen, eta esan ziguten “Nahi baduzue, hor dago udal-ontziola”. Kideekin hara joan, eta iritsi ginenean hedadura handiko lurzati bat erakutsi eta esan ziguten “Hemen egin dezakezue zuen proiektua”. Lurzatian zehar ibilita, konturatu ginen oso utzita zegoela. Zabortegi klandestino batera iritsi ginen, eta aprobetxatzeko lursail polita zegoela ikusi genuen. Alkatearekin eta gazte taldearekin negoziazioak egin genituen, eta esan ziguten “Oso ondo dago zuek nahi duzuenarentzat” eta esan ziguten 80 sokako hedadura emango zigutela⁷. Esan genuen,

“tira, hemen gaude, orain garbitu dezagun”, baina lursaila oso handia zen. Gero eta lan eta zabor gehiago zegoen. Alkateari laguntza eskatu, eta garbitzen laguntzeko makinak eman zizkigun. Horrela, gazte gehiago sartu genituen tartean, eta hainbat landare eta zuhaixka ereiten joan ginen. Batzuek han zer-nolako zuhaitzak erein genitzakeen aholkatu ziguten. Horri esker, basoberritu eta landareak erein genituen, bidexkak egin genituen, pandemian zehar lanean aritu ginen eta maskara jantzita ere espazioa antolatzen jarraitu genuen. Gero, curriculumean sartu genuen gazteek tokia bisitatu eta lantzeko aukera izatea. Udallerriak 10 urterako utzi zigun lekua. Datorren urtean errotuluak jarri nahi ditugu bideetan, gazteak eta komunitatea familiarekin hara joaten hasi baitira (Heidy Gómez, Fe y Alegría Zacualpako irakaslea, foku-taldea).

Ikus daitekeenez, konpromiso ekologikoak eta ekintza komunitate osora zabaltzeko asmoak bultzatu zuten utzitako eremuen berroneratzea, hain justu, baso eta berdeguneen galera-arazoa daukan toki batean. Alkatetzaren eta Fe y Alegríaren arteko harremana hobea izateak ere sustatu du hori guztia; izan ere, elkarrekin eta iraunkorki garatu dituzte ekintzak, hainbat arlotatik.

Ondorioz, egin litezkeen bestelako ekintza batzuk planteatu dira, adibidez, industria handiek gehiegi kutsa ez dezaten. Politika-mailan gai zaila bada ere, Guatemalako industria oso oldarkorra delako, eragile batzuek badute gogorik industriaren inpaktua murriztearekin lotutako jarduerak abiarazi eta, hala, eragin ekologikoa areagotzeko.

Bidexka ekologikoari esker, gaur egun aldaketa nabarmena dago familien kontzientzia ekologikoan. Asko dira hara joan eta landatu diren zuhaixkekin argazkiak atera nahi dituztenak, baina, horrez gain, zaintza-lanekin jarraitu nahi dute. Horrekin guztiarekin epe luzerako konpromisoa sortu nahi da, nahiz eta, oro har, bidexka berreskuratzeak “hainbat pertsonaren bihotza ukitu duen, ingurugiroa garrantzitsua dela ikasi dute-eta. Ekintza on bat egiten baduzu zure metro koadroan, beste batzuei eredu emango diezu. Kaletik bazoaz botila bat daramazula eta botatzen ez baduzu, jendeak ekintza on bat ikusiko du” (Randal, ikasle ohia, foku-taldea).

Ekologia integrala espiritualtasunaren eraldatzaile gisa: Fe y Alegríaren Ekomunitate proiektua eta bidexka ekologikoa

Ikastetxe asko eremu gorrietan daude, hala nola Fe y Alegria 44, eta ikasle gehienek baliabide eskasak dituzte. Horri lotutako faktore batzuk, besteak beste, elikagai osasungarria bermatu beharra, oztopo dira ingurumen-gaietan lan askoz iraunkorragoa egiteko. Hala eta guztiz ere, zenbait ekintza asmatu dira, hala nola “ostadar-dieta”, elikadura elikagarriago bihurtzeko, egunero kolore jakin bateko elikagai bat eraman dadila eskatuz. Beraz, orain fruta eta barazki gehiago daude dietan, eta horri lehen esandakoa gehitu behar zaio, baratzeak sortzeari, laboreei, plastiko gutxiago erabiltzeari eta abarri dagokienez.

² Soka bat 400 metro karratu pasatxoren baliokidea da (21 metro bider 21 metro)

Berdeguneak egokitu eta berroneratzeko lanak norabide harrigarria hartu du Fe y Alegriarentzat, baina erronka handia izan da erakundearentzat, gero eta gazte gehiagok nahi duelako bere eskolatik antzeko zerbait egin. Berehalako ekintzen eta ekintza iraunkorragoen artean, motibazio berezia dago guztion etxea zaintzeko lanean jarraitzeko. Baina zerk mantentzen du motibazio hori? Guatemalako Fe y Alegriaren esperientziarekin jarraituz -erakundeko hainbat ikastetxek parte hartzen dute-eta ekintza ekologikoetan- esan daiteke komunitateko kideen espiritualtasunaren eraldaketarekin parekatzen dela ekologia integrala. Gazte-ekintza aberasten duen eragingarri diskretua bihurtzen da, eta ekologia integralaren aldeko lanean etengabe jarraitzera bultzatzen ditu komunitateko kideak.

Antolatutako gazteen protagonismoa

Guatemalan Antolatutako Gazteen Protagonismo (PJO, erdarazko siglengatik) deritzona zerbait egin nahi duten gazteen klub bat baino askoz gehiago da: azken batean, ekintza soziala (eta ekologikoa) espiritualtasunarekin eta norberaren hazkundearekin uztartzen duen mugimendu bat da. Gazte-mugimendu horri zor zaio bidexka ekologikoak leheneratzeko lanaren zati bat.

Guatemalako Fe y Alegriaren ikastetxe ia guztietan dago PJO talde bat, irakasle nahiz ikasleei gehiago laguntzeko sortua. Fe y Alegriako gazte-sare horrek, ikasleen proiektuak eta aisialdi-jarduerak aurrera eramaten lagundu, eta ikasleen lidergoa indartzeko lan egiten du. Nahiko sare handia da, eta nazio-mailan nahiz nazioartean sustatu ditu jarduerak.

Jardueretan parte hartu duten ikasleek adierazi dutenez, mugimenduaren lan-ardatzetako bat ingurumenaren zaintza da. Ekintza espezifikoak ere hartzen ditu barnean, hala nola zuhaitzak landatzea, eta eragin pertsonal handia eta Fe y Alegriako sare osoan sentsibiltate handiagoa sortuko duen hezkuntza bat sustatu nahi da. Espazio horretan, ingurugiroa ez kutsatzera bultzatzen dira beste gazteak (Jaquelin Contán, ikaslea, foku-taldea).

Horregatik, espazio horretako gazteei esker, ingurumenari dagokionez interes handia daukaten ideiak atera dira, gazteek beren garapenetik ahaldunduta haz daitezela bilatzen dutenak. Pandemian ere -zalantzarik gabe, eskolako arlo desberdinen arteko lana zehazteko izan den oztoporik handiena- mugimenduko kideen lidergoa lantzen jarraitu zen.

Jakina, horrek aldaketa nabarmena dakar komunitatean, eragileak izaki integral bihurtze aldera. Hortik, bada besteren bizitzaren gaineko eragin bat, guztion onura bilatzen duena, guztion etxearen ongizatearekin hasita. Gazteek ongi dakite denok garela naturaren parte, eta, beraz, ekintzek guztiok inplikatu behar gaituztela. Guztion etxea zaintzea ez da ura zaintzea bakarrik, baizik eta nork bere burua zaintzea, pertsona gisa. Ekologia integralak, dena konektatzen duenez, gizakiaren espiritualtasunaren eta ingurune hurbilaren arteko lotura sustatzen du; hala, gogorarazten digu osotasun baten parte garela, zerbait handiagoaren parte, eta beharrezkoa dela errukiz eta elkartasunez ekitea, gogo menderatzailerik gabe, guztiok izan dezagun guztion etxe deritzogun horretan duinki bizitzeko aukera.

